

PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD
MAYORES DE 25 Y 45 AÑOS

PROBA OROKORRA

2023ko PROBA



EUSKARA

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2023ko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD: MAYORES DE 25 Y
45 AÑOS

MAYO 2023

EUSKARA

Ituna COP15 goi bileran: Lurraren %30 babestuta, 2030. urterako

Afrikako estatu batzuek salatu dute entzungor egin dietela haien kritikei. Sinatzaileek adostu dute funts berri bat sortzeari buruz hitz egitea.

Igor Susaeta- Gorka Berasategi Otamendi

2022ko abenduak 20

Espezieen desagertze azkartua galgatzeko asmoarekin, COP15 NBE Nazio Batuen Erakundearen natur aniztasunari buruzko goi bileran adostu dute planetaren %30 kontserbatzea. Azken bi asteetan Montrealen (Quebec) egindako biltzarrean parte hartu duten ia 200 herrialdeek akordio hori lortu dute goizaldean. AEBak ez daude, ordea, itunaren sinatzaileen artean.

Adostutakoaren arabera, «bereziki garrantzitsuak» diren ekosistemak babestuko dituzte. Herrialdeek zortzi urteko epea dute helburu horri dagozkion neurriak hartzeko. Hori bai, ez dute zigorrik ezarri konpromisoak betetzen ez dituztenentzat. Azken xedea da 2050erako etenda egotea orain arriskuan dauden espezieen galera, baita egungo desagertze tasa globala hamar aldiz apalagoa izatea ere.

Mundu osoko 3.000 zientzialariren ikerketa batek ohartarazi duenez, izaki bizidunen espezieen %10 desagertuta egongo dira mende amaierarako, neurririk hartu ezean. Lur planeta dinosauroen desagertzetik izan den espezie galerarik handiengan da, askok seigarren espezie desagertze masibotzat jo duten prozesuan.

Txinak eta Kanadak bultzatu dute akordioa. Horiek izan dira biltzarraren antolatzaileak. COP15 bilera Txinan egitekoa zen, 2020an, baina COVID-19aren pandemiak atzeratu du.

Afrikako estatuen eta garabidean diren beste batzuen lehentasuna zen biodibertsitatea babesteko funts berri eta bereizi bat sortzea, eta diru ekarpen handiagoa eskatu diete estaturik aberatsenei. Iparraldeko herrialdeek onartu dute funts berri bat eratzea, baina NBERen egungo finantzaketa mekanismoaren barruan, eta funts bereizi bat eratzeke elkarriketak abiatzera konprometitu dira.



Sistemaren kostuak

Lege dekretu bidez beste bi aldaketa egitea da gobernuaren asmoa. Lehenengoa sistemaren kostuei dagokie. Argindarraren tarifa zehazten denean, gobernuari dagokio sistemak eragiten dituen kostuak erabakitzea: garraioa, banaketa, berriztagarriei ematen zaizkien laguntzak... Kostu horiek urtero eguneratzeko kalkuluak KPlaren arabera egiten zituen orain arte, baina "gaurtik" gauzak aldatu egin dira: azpiko inflazioaren arabera kalkulatuko dira, hau da, erregaiak eta elikagai freskoak kontuan hartu gabe. Soriaren arabera, erabaki horrek ez ditu "jokoaren arauak" aldatzen, baizik eta "sariak arrazionalizatzeko modua". Horrekin 330 milioi euro inguru gutxiago gastatuko dituela aurreikusi du.

Tarifa edo merkatua

Dekretu bidez hartu nahi duen bigarren neurria tarifa aukeratzearen ingurukoa da. Orain arte ekoizleek edozein momentu zuten aukera tarifa arautua hautatzeko edo merkatuko prezioa gehi saria hartzeko. Aurrerantzean, baina, egindako aukera behin-betikoa izango da: tarifa edo merkatua primarik gabe. Soriaren arabera, merkatuko prezioak igotzen zirenean askok horren alde egiten zuten, eta prezioak jaisterakoan, berriz, tarifa arautua hartzen zuten.

Sektorea, aurka

Energia arloko sektoreak ez du begi onez hartu gobernuaren iragarpena. Protermosolar patronalaren ustetan, sektorea "suntsitzen" ari dira. APPA energia berriztagarrien ekoizleen elkarteak adierazi du neurri horien helburua gaur egun dituzten plantek "porrot egitea" dela.

Berria egunkaria (egokituta)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK
25 ETA 45 URTETIK GORAKOAK

2022ko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2022

EUSKARA

GALDERAK

- 1. Zein da testu honen helburua? (1 puntu)**

- 2. Zein da Espainiako gobernuaren asmoa neurri hauek hartzean? (0.5 puntu)**
 - a) 600 euro edo gehiago aurreztea.
 - b) Tarifaren defizita ez igotzea.
 - c) Argindar erabiltzaileen fakturaren prezioa dagoenean mantentzea.
 - d) Energia berriztagarrien plantek behea jotzea.

- 3. Zein dira gobernuak lege dekretuaren bidez egin nahi dituen bi aldaketak? (0.5x2, 1 puntu)**

- 4. Zergatik nahi die gobernuak argindar ekoizleei tarifa edo merkatuaren artean aukeratzeko eskubidea kendu? (1 puntu)**
 - a) Ekoizleek irabazi handiak zituztelako.
 - b) Tarifa defizita murriztuko delako.
 - c) Merkatuko prezioak jaisten zirenean ekoizleek tarifa arautua aukeratzeko zutelako.
 - d) Ekoizleek behin-betiko aukera egiten badute, fakturak jaitziko direlako.

- 5. Zergatik dago energia berriztagarrien ekoizleen elkartea neurri hauen aurka? (1 puntu)**

- 6. Zein dira tarifa defizita murrizteko gobernuak hartuko dituen lau neurriak? (0.5x4, 2 puntu)**



7. **Eman esaldi hauek beste era batera, esanahia mantenduz.** (0.5x4, 2 puntu)

- a) "...sistemaren kostuetan igoerak agertzen badira ere, erabiltzaileak ez du gehiago pagatu beharko."
- b) "Soriaren arabera, erabaki horrek ez ditu jokoaren arauak aldatzen."
- c) "Argindarra garestitu ez dadin, neurriak hartuko ditu Espainiako gobernuak."
- d) "Erabiltzaileentzat, ordea, ez da printzipioz aldaketarik egingo."

8. **Eman testuko hitz hauen sinonimoak, testuan duten esanahia kontuan hartuta.** (1.5 puntu)

HITZA	SINONIMOA
Ahaleginetan (Azpтитulua)	
Iragarri (1. paragrafoa)	
Murriztu (1. paragrafoa)	
Prezioa ("Tarifa edo merkatua" atala)	
Aurrerantzean ("Tarifa edo merkatua" atala)	

Ituna COP15 goi bileran: Lurraren %30 babestuta, 2030. urterako

Afrikako estatu batzuek salatu dute entzungor egin dietela haien kritikei. Sinatzaileek adostu dute funts berri bat sortzeari buruz hitz egitea.

Igor Susaeta- Gorka Berasategi Otamendi

2022ko abenduak 20

Espezieen desagertze azkartua galgatzeko asmoarekin, COP15 NBE Nazio Batuen Erakundearen natur aniztasunari buruzko goi bileran adostu dute planetaren %30 kontserbatzea. Azken bi asteetan Montrealen (Quebec) egindako biltzarrean parte hartu duten ia 200 herrialdeek akordio hori lortu dute goizaldean. AEBak ez daude, ordea, itunaren sinatzaileen artean.

Adostutakoaren arabera, «bereziki garrantzitsuak» diren ekosistemak babestuko dituzte. Herrialdeek zortzi urteko epea dute helburu horri dagozkion neurriak hartzeko. Hori bai, ez dute zigorrik ezarri konpromisoak betetzen ez dituztenentzat. Azken xedea da 2050erako etenda egotea orain arriskuan dauden espezieen galera, baita egungo desagertze tasa globala hamar aldiz apalagoa izatea ere.

Mundu osoko 3.000 zientzialariren ikerketa batek ohartarazi duenez, izaki bizidunen espezieen %10 desagertuta egongo dira mende amaierarako, neurririk hartu ezean. Lur planeta dinosauroen desagertzetik izan den espezie galerarik handiengan da, askok seigarren espezie desagertze masibotzat jo duten prozesuan.

Txinak eta Kanadak bultzatu dute akordioa. Horiek izan dira biltzarren antolatzaileak. COP15 bilera Txinan egitekoa zen, 2020an, baina COVID-19aren pandemiak atzeratu du.

Afrikako estatuen eta garabidean diren beste batzuen lehentasuna zen biodibertsitatea babesteko funts berri eta bereizi bat sortzea, eta diru ekarpen handiagoa eskatu diete estaturik aberatsenei. Iparraldeko herrialdeek onartu dute funts berri bat eratzea, baina NBEren egungo finantzaketa mekanismoaren barruan, eta funts bereizi bat eratzekei elkarriketak abiatzera konprometitu dira.

Adituen arabera, estatuak akordioa betetzen baldin badute aldaketa handiak eragingo ditu nekazaritza industrialean, enpresen hornidura kateetan, eta kontserbazioan komunitate indigenek izango luketen rolean. Izan ere, itunean helburutzat jaso dute 2030erako erdira jaistea nekazaritza intentsiboan erabilitako ongariak, eta neurri berean murriztea pestizidei eta produktu kimiko arriskutsuei lotutako arriskuak.



Beste konpromiso batzuk

Lurraren %30 babestuko dutela ez ezik, sinatzaileek hitzeman dute degradatutako eremuen %30 berreskuratuko dituztela hamarkada amaierarako; gainera, larrialdi neurriak adostu dituzte desagertzeko arriskuan diren espezieak babesteko, eta ingurumenari kalte egiten dioten jarduera ekonomikoetarako diru laguntzak erreformatuko dituzte —urteko 500 milioi euro inguru dira—. Halaber, enpresei eta finantza erakundeei eskatuko diete eman dezatela beren jarduerak ingurumenean eragiten duen kaltearen berri. Ez dituzte, ordea, legez horretara derrigortuko.

(Egokitua) <https://www.berria.eus/paperekoa/1891/013/001/2022-12-20/ituna-cop15-goi-bileran-lurraren-30-babestuta-2030-urterako.htm>

GALDERAK:

1. Zergatik erabaki dute 200 herrialdek Lurraren %30 babestea? (puntu 1)

3000 zientzialariek egindako ikerketa baten arabera, ez bada ezer egiten, izaki bizidunen %10 desagertuko da mendearen amaierarako. Hau gerta ez dadin, 200 herrialdek hitzarmen hau sinatzea erabaki dute.

2. Lurraren %30 babestea izan al da hartu duten hitzarmen bakarra? (puntu 1)

- A. **Ez, beste hainbat akordiotara ere heldu dira.**
B. *Ez, horretaz gain, enpresek beren jarduerak ingurumeneari eragiten duten kaltearen berri eman beharko dute.*
C. *Ez, honek aldaketa handiak eragingo ditu nekazaritza industrialean.*
D. *Bai, hitzarmen hau izan da sinatu dutena.*

3. Nazio Batuetako herrialde guztiek agertu dute neurri hauekiko adostasun osoa? (1 puntu)

Ez, AEBek ez dute hitzarmena sinatu eta Afrikako herrialde batzuk kexak zituzten.

4. Zein da sinatzaileek itun honekin lortu nahi duten helburu nagusia? (puntu 1)

- A. *2030erako erdira jaistea nekazaritzan erabilitako ongarriak.*
B. **2050erako desagertzeko arriskuan dauden espezieen galera gelditzea.**
C. *Izaki bizidunen ekosistema garrantzitsuak babestea.*
D. *Degradatutako eremuen %30 berreskuratzea.*

5. Garabidean dauden estatuen eskakizun osoa onartu al da? (puntu 1)

- A. *Bai, funts berri bat eratzea onartu da, NBEren finantzaketa mekanismoaren barruan.*
- B. *Ez, herrialde aberatsek ez dute ekarpen handiagoa egitea onartu.*
- C. *Bai, herrialde guztiek hartuko dute parte funts horretan NBEren barruan.*
- D. *Ez, ez da funts bereizia sortu, nahiz eta elkarrizketak abiatzea adostu duten.*

6. Zein izango dira akordio honek nekazaritzari ekarriko dizkion aldaketak? (puntu 1)

Erdira jaitsiko dira ongarrien erabilera eta pestizidei eta produktu kimikoei lotutako arriskuak.

7. Testuaren egoera komunikatiboaren ezaugarri hauek azaldu: testu-mota edo generoa, erabilera-eremua, hartzailea, testuaren asmoa. (1,5 puntu)

Testu-generoari dagokionez, egunkari batean argitaratutako albistea da; beraz, argi dago erabilera-eremua komunikabideak edo hedabideak direla. Albistea publiko zabalari zuzenduta dago eta testuaren asmoa informatzea da.

8. Dituen ezaugarriak kontuan izanda, zein arrisku egon daitezke hitzarmen hau ez betetzeko? (1,5 puntu)

Ez dute zigorrik ezarri ituna betetzen ez dutenentzat, beraz ez betetzeko arrisku handia dago. Gainera, herrialde batzuk eskaerak egin dituzte hasieratik eta horiek bete behar dira, adibidez: biodibertsitatea babesteko funts berezia. Ez badira eskaera hauek betetzen, hitzarmena hautsi dezakete.



9. Zein sinonimo edo baliokide erabiliko zenuke belztuta dauden testuko hitz hauen ordez? (puntu 1)

TESTUKO HITZA	SINONIMO EDO BALIOKIDEA
...hamar aldiz apalagoa izatea...	<i>gutxiago, txikiago...</i>
Halaber , enpresei eta finantza erakundeei...	<i>Era berean, berebat...</i>
...ingurumenean eragiten duen kaltearen berri...	<i>sortzen, egiten...</i>
...; gainera ,...	<i>horretaz gain, horretaz aparte...</i>